

ITZIAR NOGERAS BERRA

EUSKARA XXI BATZORDEKO KIDEA 2010-2016 BITARTEAN

NONDIK NON NORA

Euskara biziberritzeko eta indartzeko bide berriak gaiaren inguruan gogoeta egiteko elkartu ginen hainbat eragile joan den uztailan, Sabino Arana Fundazioak eta Euskaltzaindiak deituta, goiza iraun zuen mintegi batean.

Gaiaren izenburuak burua etorkizunean jartzera eramaten gaitu berehala. Alabaina, ezin da etorkizunik aurreikusi; bai ordea, nondik gatozen aztertu, non gauden ikusi, nora joan nahi dugun erabaki edota irudikatzeke; nora iritsiko garen ziur jakin gabe. Horiek horrela, erakundeek euren hizkuntza politika egokitzen joan behar dute, gizartean sortuz doazen egoera berriei aurre egiteko. Beraz, etorkizuna ezin da aurre-esan, baina, oparotasuna ekarriko badu, lanean harrapatu behar gaitu.

Euskara esaten dugunean, irudia erabiltzen ari gara, euskaldunengan eta euskal herritarrengan baitago gakoia, hiztunengan; pertsonengan, azken batean. Halere, hizkuntza sistema oso bat da, ez da hiztuna, hitz multzoa edo/eta gramatika arategi hutsa. Hizkuntza eta hiztuna marko kontzeptual baten barnean kokatzen dira, bere sinesmen, iruditeria eta erreferentzia kulturalekin. Horiek horrela, norbanakoaren, gizartearen eta erakundearen arteko elkarlana ezinbestekoa da euskara biziberritu eta indartuko bada. Elkarlan horretan arlo guztietan eragin behar delarik, hala nola: hizkuntzaren ikaskuntzan, hizkuntzaren erabileran, komunikazioan, motibazioan, hizkuntza-baliabideetan, egituren eraketan, teknologian zein diskurtsoaren lanketan; zeharkako eran eta sektore guztietara iritsiz.

Era berean, euskarak batu eta harro sentiarazten gaitu eta horrek sendotasuna ematen digu biziberritzeko bide berriak topatzeko. Eten-gabea baita bilatze hori; orain arte ere halakoa izan da. Garai berriak konplexuagoak dira, gainera, eta bideak ere anitzagoak izan beharko dira ezinbestean.

Euskararen komunitate osoaren lana da euskararen biziberritzea, eta elkarlanean aritzeak, mintegian islatu zen eran, bertute handia da. Komunitatean korrante eta ikuspegi desberdinak daude, baina, hori gainditu ezinezko oztopo ez izatea da garrantzitsua. Azken hamarkadan, adostasunen gaia inoiz baino indar handiagoarekin ardatz bihurtu dela esatera ausartuko nintzateke. *Euskararen Gaineko Oinarizko Diskurtsoa* egitasmoan ageri da eta *Euskara irabazteko bidean* liburuan ere bai. Izaera desberdineko lanak badira ere, aurrera begirako gako interesgarriak jasotzen dira era desberdinean, lehena, ikerketa soziolinguistikoa da eta EAEko (Euskal Autonomia Erkidegoa) hizkuntza-politikaren esparruaren lanketan kokatzen da, eta bigarrena, testigantzen liburua da eta iritzi ugari jasotzen ditu mosaiko baten eran.

NONDIK GATUZ

Euskalgintzak eta hizkuntza-politikak garaian garaia egokitu behar izan dute, horrek euskara iraunarazi duelarik. Iraun du *korpusa* egokitzeko gaitasuna izan duelako, euskara batua sortuz eta hedatuz, eta iraun du *estatusa*, bere hizkuntza normalizazioarekin, kudeatu duelako. Horrela modernizatu da euskara eta bildu ditu bere baitan euskaldunak zein euskal komunitatea.

Komunitate horrek eman dizkio, era berean, bizia zein esanahia hizkuntzari eta garatuz joan da esparru ugariara eramanez: plazara, eskolara, unibertsitatera, liburueta, musikara, hedabideetara, politikara, akademiara, zientziara, lantokietara, internetera... Sistema oso bat eraiki du, hain zuzen ere, *Euskalgintza* izeneko komunitate horrek.

Komunitate hori errealitate juridiko-politiko desberdinek inguratzen dute eta bi legeren baitan murgilduta dago (EAEko Euskararen legea eta Nafarroako Foru Erkidegoko *baskuenzearena*, 1982 eta 1986koak, hurrenez hurren). Hitzunek, bere aldetik, ur horietan nabigatu dute eta, ugarituz joan dira -eta doaz-, populazioaren herena

izateraino euskal hiztunak. Horrek guztiak hiztun tipologia ugaritu du, gainera; *euskaldun berrien* agerpena eta ugaritzea ekarri du esate baterako, jatorrizko euskaldunekin edo *euskaldun zaharrek*in batera.

Horiek horrela, honela dio sarreran *Eta hemendik aurrera zer?* gogoetak, errealitate juridiko-politiko zatikatu horretan izan den arnasbide bat printzipioetara ekarrita:

Euskarak EAEen lege babesa, hizkuntza politika eta herritarren borondatea izan ditu alde XX. eta XXI. mendeen arteko urtealdi honetan, eta hiru faktore horien uztardurak ahalbidetu du, neurri handi batean, gaur bizi duen pizkundea. Administrazio, hezkuntza eta leku ofizial guztietatik kanpo egonaraztetik legezko ofizialtasunera, eta politika publikoan jazarria edo baztertua egotetik sustatua izatera igarotzeak amasa eman dio euskarari. Baina, euskararen biziraupenean faktore giltzarririk izan bada, euskaldunen borondatea izan da.

Beste alde batetik, XX. mendearen azken bi hamarkadetan plangintzak izan dira Euskararen Normalizazioan giltzarri, eta nagusiki EAEen garatu dira, sektore publikoan zein pribatuan. Sektore publikoan, EAE herri-administrazioiko VI. plangintzaldian dago murgilduta honezkeroko. Nafarroan, berriz, I. euskara-plana abian da 2019-21 epealdirako. Sektore pribatuan, lan-munduko euskara-planak jarri ziren abian 1990. urtean; enpresetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko eta, era berean, euskara entitatearen kudeaketan txertatzeko helburuz. Lehenik esperientzia pilotuak izan ziren lan-munduko euskara-planak, eta, ondoren, 1997. urtean hasi ziren esperientzia horiek hedatzen. Orduz geroztik tamaina desberdineko 400 entitate edota enpresatik gora daude murgilduta euskara-planetan, 20.000 langile baino gehiago inplikatu direlarik zuzenean. Unibertsitateek ere berariaz landutako euskara-planak gidatu dituzte, arloen eskaintzan zein zerbitzuetan euskararen aukera bermatzeko, baita euskararen erabilera areagotzeko ere.

Aurrerapausoak era planifikatuan eta adostuan emateko ezinbesteko tresna bihurtu dira plangintzak. Helduen euskalduntzeak elikatu ditu plangintza horien ezagutza-beharrak, gainera. Era horretara, helduen euskalduntzean *borondatezko* ikasle-tipologiari *laneko motibazioarekin* joandako ikasle-tipologia gehitu zaio urte hauetan guztietan.



hermēs

Ez da ahaztu behar, hala ere, iritsi garen lekuraino iritsi ahal izan dugula Hezkuntzan azken 60 urteetan -Ikastolen sorrerekin abiatuta eta Euskal Eskola Publikoa izateraino- egin den ibilbideari esker; horrek ardaztu baitu euskararen garapena hein handi-handi batean.

NON GAUDE

Ikusi dugunez, herrialdez herrialde egin diren urratsak lege bakoitzaren garapenaren tesuinguruan desberdinak izan dira, eta esan genezake, zalantza izpirik gabe, datuak hor baitaude inkesta soziolinguistikoz soziolinguistiko ikusten denez, EAE dela euskararen normalizazioan aurrerapen sendoena izan duena, oro har; eta Euskal Herri mailako *arnasgune* bihurtu da era horretara. Nafarroan ezagutza gora doa zailtasun handiekin, betiere, eta Iparraldean arrisku egoeran jarraitzen du. Euskararen erabileran aurrerapen garrantzitsuenak 1990-2000 urteen bitartean gertatu dira, ondoren erabileran formalean aurreratu da gehien eta, bereziki, EAEn. Euskararen bizi-indarra ahula dela agertzen hasi da azken azterketa soziolinguistikoetan, erabileran eta transmisioa geratu egin delako.

Modernitateak gizarteko paradigma ugari gurutzatu eta gainjartzen dituen egoera konplexua ekarri digu. Horiek horrela, euskararen garapeneko politikek, euskararen sustapenak, euskararen industriak, euskararen sormenak eta euskararen militantziak, denek lekua izan behar dute garai hauetan, garai oparoa izango bada euskararentzat. Horregatik, atal bakoitzak gaur inoiz baino gehiago lanketa propioa behar du, komunitatea trinkotu eta arnasbideak ugarituko badira.

Hizkuntza ez da kalean, ohiko esparruetan, bakarrik jokatzeko, *hodeira* joan zaigu eta erronka areagotu egin da, *hiperkonektatua* dagoen gizarte garaikidean, *tekno-gizartean*. Horrez gain, lurralde berean kultura eta hizkuntza aniztasuna eta elkarren arteko leku bilatzea gero eta handiagoa da.

Milurtekoaren bigarren hamarkadan, eta bereziki 2015 ezkerotik, plangintza, ekintza-plan eta lege-araudiarekin batera arreta berezia jarri zaio *diskurtsoaren* gaiari. Izan ere, gizarteari begira diseinatu beharreko hizkuntza estrategiak gehiengo zabal baten asmoak ezagutzeko egin nahi dira, eta babesa bilatuz, beti ere. Testuinguru horri erantzuteko, eta erabilerako sapaia

hausteko, landu da *EGOD egitasmoa* (Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoa) eta abiatu da *Euskaraldia* bezalako ekimen berritzailea.

NORA JOAN NAHI DUGU

Aurrean ditugun erronkak, globalizazioak eragindakoak, handiak dira edozein gizarterentzat eta are handiagoak egoera minorizatuan, estatu propioa gabe, bizi garenontzat. Horregatik uste dut behar ditugula herria zeharkatzen duten proiektuak alderdien interesen ginetik, irauteko eta desberdintzeko, eta Euskara horietako bat da.

Euskal Herri euskaldun bat amesten dugunok onartu beharko dugu, norberak nahi duen hizkuntza erabiliko duela, eta ez dela beti euskara izango denek hautatutakoa. Baina, politikak ahulenaren aldekoak izango badira, batez ere, euskararen erabilerak gora egitea nahi dugulako da, era iraunkorrean, inori kalte egiteko asmorik gabe, geure buruari zor diogulako. Izan ere, hizkuntza indartsuek trabak berez eta sarri jartzen dituzte. Hala, euskaldunok hautatzeko aukera-berdintasuna behar dugulako, izan behar dugu hizkuntza-politika berariazkoa, bistakoa da.

Amaitzeko, bide berriak eta sendotasuna topatzeari begira kontuan hartu beharreko faktoreak jaso nahiko nituzke labur ondoko zerrendan: komunitate barneko elkarlanean sakontzen jarraitzeko beharra (*Euskaraldia* eredu); adostasun sozial eta politikoa indarberritzeko beharra; mentalitate elebakarra gainditzea eta aniztasunari begirako formula berriak topatzea; euskarak gizarteko eta teknologiko esparruak irabazten jarraitzea; belaunaldi berriei begira, transmisioa bermatzea, bai familia bidez bai hezkuntzaren bidez; euskara herri mailako balorea eta marka bihurtzea.

Adostasun zabalak bilatuz, diskurtsoaren zoru komuna landuz eta, azken batean, bizikidetzara ikuspegi sakonduz, aurrera goaz euskararen biziberritzean.

ERREFERENTZIAK:

EGOD egitasmoa (*Euskararen Gaineko Oinarrizko Diskurtsoa*), Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikako Sailburuordetza, 2015

Eta hemendik aurrera zer?, Euskararen Aholku Batzordea&Hizkuntza Politikako Sailburuordetza, 2016

Euskara irabazteko bidean, Garikoitz Goikoetxea, 2016 (Aleka)